



LIBURUA

Ertzetik ertzera, ibaia



WWW.AMORBELTA.COM

IBAIERTZEKO IPUINA

OIHANE AMANTEGI

ELKAR, 2020

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Urtea amaitzeko eta liburua hasteko liburuaren azken orri-
ra joateko gonbidapena egin
nahi nizuke. Irakurtzen hasi
aurretik girotu ezazue abesti horiekin
egongela. Ezagutzen badituzue jakingo
duzue giro lasai eta berezia sortzeko
parada emango digitela. Neguko sol-
sizioaren giro introspektibo eta magi-
koa jaso dut abestiotan. Prestatu txo-
kolate beroa edo ardo kopatxo bat. Eta
gozatu.

Oihane Amantegiren lehen liburu ho-
nek hasiera harrigarria eta inpaktuz-
koa du oso. Askotan entzun diot Josune
Muñozki anekdota on baten aukeraketa
idazle on baten marka dela eta anekdo-
ta horrek sortzen duen inpaktua ondo
ebaztea eta eskatzen duen tentsioa man-
tentzea ez dela batere erraza. Bada, lor-
tzen du Amantegik anekdotaren pisua-

ri eutsi eta liburuan zehar maila altua
mantentzea.

Hilda jaio den ahizpa bikia eta bizirik
jaio dena aurkeztuko zaizkigu oso hasie-
ratik. Hortik aurrera bizitza eta herio-
tzaren minez, mugez eta kontrakotasu-
nez arituko da. Mendebaldeko kulturari
hain ohikoa den banaketa lausotuko du
eta gerturatuko ditu bizitza eta heriotza.
Pertsonaia nagusiaren amets, irudimen
eta barne bizitzaren bitartez gertatuko
da hau. Mundu magiko eta aberatsari
egingo dio leku. Ipuinaren eta eleberri-
aren artean jolasten arituko da, genero
literarioen mugak ere kolokan jarritz.

Ibaia da ipuinaren hitzak eramango
dituen korronea: Ochlockonee ibaia,
ibaiertzeta, ibaiak gainezka egitea, ibai
izoztuak, errekek... espazio fisiko gisa
beti mugimenduan dagoen leku bat da
ibaia. Edertasunaren gotorleku ere bada.

Bizitza ugarria ere jasotzen du. Beste alde
batetik, izaki magikoen ezkutalekua da.
Misteriotsu. Arriskutsu. Urak, emozioen
munduak alegia, bi munduren arteko
elkarrizketa sortzeko metafora gisa fun-
tzionatzen du.

Liburua ez da ehun orrialdetara iris-
ten eta begirada batean konturatuko
gara atal bakoitza kapitulu oso motzek
osutzen dutela. Moztasun hori kontatu-
ko zaigunaren sakontasunarekin dago
kontrastea eta efektu pizgarria sortuko
du irakurlearengan. Anekdota bikaina-
ren, erritmo biziaren, gai ausartaren eta
metafora ezinhobearen bidez, eleberri
borobila eta orekatua sortu da Oihane
Amantegiren lumatik. Eskerrik asko,
Oihane, ibai berriekin literaturaren ita-
soa hornitzearren. 2021ari osasuna eta
letren garraiolari apartak eskatuko diz-
kiot. Amesten jarraitzeko. ●